



2025ko BATZAR IREKIA:

NONDIK-NON-NORA eta NOREKIN

BILBO, 2024ko ABENDUA

IPES FUNDAZIOA

Aurkibidea:

SARRERA:	3
I. Nondik gatozen:	4
A. Zer da IPES?.....	4
B. Azken urteotan (Garatu).....	4
C. Urte haueko proiektuak (garatu).....	5
D. Laburpena (Kendu?).....	5
II. Non gaude:	5
A. Egitura.....	5
B. Talde motorraren partaideak.....	5
III. Nora goazen:	5
A. Aurrera begirako proiektuak.....	5
B. Prozesu parte-hartzaileak.....	6
IV. Ariketa kolektiboa	6

SARRERA:

Dokumentu honetan IPES Fundazioaren 2025ko batzar irekiaren nondik norakoak jasotzen dira.

2025ko batzar irekia hurrengo izenburua izango du: NONDIK-NON-NORA eta NOREKIN. Izenburu horrek aurkeztuko dugun eduki guztia borobiltzen du, eta, horrez gain, garrantzi berezia ematen dio “NOREKIN” horri. Azken finean IPES herri mugimenduek osatzen dute, eta horregatik batzarraren helburuak hurrengo biak dira:

- Hurrengo kurtsuaren proiektuak aurkeztea Herri Mugimenduei
- IPESeko kolaboratzaileen zein jende berriaren gustoa piztea gure proiektuetara zein taldera batzeko

Modu horretan 4 bloke nagusietan banatuta egongo da aurkezpena:

1. Nondik gatozen blokea. Horretan zer da IPES eta zer egin du azken urteotan aurkeztuko dugu.
2. Non gaude. Taldea aurketuko dugu eta beste eragileekin ditugun harremanak zein funtzionaendu berriak azalduko dizuegu.
3. Nora goazen. 2025ko urterako pentsatuta ditugun proiektuak plazaratuko ditugu.
4. Ariketa kolektiboa. Ariketa honetan “norekin” horri erantzuniko diogu. Gure jarduerak herri mugimenduko eragileekin egin izan ditugu historikoki eta horrela izaten jarraitzen espero dugu. Horregatik, ariketa honetan zuen iritziak jasotzeko egingen dugu.

Beraz, behin azalduta blokeak eta helburuak azalduta, eskerrak eman nahi dizkizuegu urtea hauetan IPES ondoan ibilbidea egin duzuenoi eta baita azken urteetan batu zaretenoi. Plazer bat da urte berriaren plangintza zein pasa den urtetako hausnarketak zuekin partekatzea.

Besterik gabe, aurkezpenari pasoa emango diogu.

I. Nondik gatozen:

A. Zer da IPES?

1977tik jantzigintza herritarra antolatzen duen ikerketa taldea da. Errealitate konplexu eta aldakorren aurrean biluzik aurkitzen gara maiz. Hotz egiten du kanpoan, eta garai ankerrotan, informazioak euri jasa trumoitsu gisa heltzen zaizkigu, tifoietan. Jakina, ez gara inguruneari aurre egiteko prest jaiotzen eta bizitzan zehar eskaintzen dizkiguten jantziak ez dira beti aproposenak. Taila estuetan hertsirik nahi gaituzte, edota iraganean iltzatutako jantzi zaharkituetan. Gure beharretara egokituriko jantzi sortaren ordeztu, munduko edozein txokotan ikusten diren modako uniforme grisak eskaintzen dizkigute.

1977tik euskal herritarrak jantzen dihardu IPESek. Berrogei urte ingurunera egokiro prestatzeko jantzigintza herritarra antolatzen. Bakoitzaren ingurunea ezagutu eta eraldatzeko moduko jantziak ekoiztuz, guztien neurrirako jantziak eta denen artean josiak. Berrogei urte josten eta XL neurria heldu da IPES. Edonor sartzeko moduko neurria, aniztasunak emandako neurria, handitzen ari da jantzigintza faktoria herritarra! Handitzen kuantitatiboki, esku eta orratz gehiago saretuz, eta handitzen kualitatiboki, josteko modu berriekin.

Literaturak, sarri, errealitatea zehazkiago deskribatzen du azalpen analitiko batek baino. Dena dela, merezi du “jantzigintza herritarra” zer den eta nola lan egiten dugun azaltzeak:

Egunerokotasunean hirukote bat aritzen da Bilboko Ronda kaleko 25. zenbakian aurkitzen den IPESen bulegoan. Dena dela, jende andana ibiltzen da egoitza honetatik gora eta behera, hirurogei bat kolaboratzaile baitaude IPESeko lan talde eta sare ezberdinetan lanean eta hamarnaka eragile proiektu ezberdinetan elkarlanean. Jende ugari etorri eta joan, egunerokotasunean, eta hamaika dokumentu noizbait pisura heldu, eta bertan gelditu direnak, ondo ondo artxibatuta. Perla andana topa daiteke IPESeko artxibategian, eta hain zuzen ere, digitalizazio eta zabaltze lanetan murgildurik gaude oraintxe bertan.

IPES zer den ikusteko modu on bat da, hain zuzen ere, artxiboari erreparatzea. Berrogei urteotan zelako gaiak landu diren ikusirik, argi ikusten da euskal herritarren prestakuntza, euskal kultura sustatzea, izan dela IPESen ekarpenaren ardatza. Euskal gaiak, emakumeak, ezker pentsamenduak, nazioarteak,... pisu handia izan dute urteotan guztiotan eta egun, lau lan ildo nagusitan bildu daiteke IPESen jarduera beti heterogeneoa -nahiz eta baden sailkapen honetatik at gelditzen den proiekturik:

- Euskal aniztasuna
- Ezker pentsamendua
- Kartzelak kalera
- Euskal Herriko historia

B. Azken urteotan (Garatu)

Gurea, Euskal Herriko herri migumenduak bezala, militantzia espazioa da eta oso ongi dakigo modu eraginkor batean jardutea etengabe ez dela lan erraza. Bereziki COVID-a eta gero, gure jardun politikoa aurrera eramateko hainbat zailtasunekin topatu gara eta horrek azken urteetan barne hausnarketa prozesu batera eramán gaitu.

Baina behin korapiloak askatuta, taldeari eta funtzionamenduari forma berria eman diogu, aurrerago aurkeztuko duguna.

C. Urte hauetako proiektuak (garatu)

Hala ere, denbora honetan ekintza txikiagoak eraman ditugu aurrera:

- Euskal Herria Digitalaren parte gara
-

D. Laburpena (Kendu?)

Laburbilduz, IPES 1977tik jantzigintza herritarra antolatzen duen ikerketa taldea da. Herri mugimenduko eragile ezberdinak batzen dituen espazio anitza eta irekia da. Beti, herri boterea eraikitzeke asmoz, ikuspegi kritiko eta eraikitzaile batetik.

Jarraian, IPES-eko gaur egungo egoera aurkeztuko dute eta aurrera begirako erronkak baita ere.

II. Non gaude:

A. Egitura

Egiturari dagokionez azken hilabetetan berritzen joan gara. Horregatik, gaur gaurkoz, bi talde ezberdinak osatzen dute egitura:

- Talde motorra → proiektua aurrera eramaten duten taldea
- Bulegoa → espazio erabiltzen duten eragileekin osatutakoa. Honetan, IPESeko bulegoaren erabilera kudeatzen da. Horrez gain, jarduerak zabaltzen ditugu, auzoko herri mugimenduei heltzeko eta partekatzeko. Guretzat dituzten proposamenak elarazteko irekita dago baita ere.
- Sarea → Sukalde lanak egiten ari gara oraingoz. Talde honen ideia da IPESeko jarduerak zabaltzea interesa izan dezaken norbanakoari, eta modu honetan guztion artean IPESeko proiektuak aurrera aterako ditugu.

B. Talde motorraren partaideak

IPES lantalde motorra herri mugimenduko zein lanbide ezberdinetatik datorren jendeak osatzen du. Besteak beste, (aipatu nondik gatozen).

Geure buruak aurkeztuko ditugu: Amaia, Iraia, Ibon, Mikel eta Oiane. Eta Iraia eta Oiane utziko ditugu hurrengo blokeak aurkezten.

III. Nora goazen:

A. Aurrera begirako proiektuak

2025-2026ko bi proiektu nagusi erabiki ditugu:

- (Anti)Punitibismoa. Justizia feminista
- Formakuntza eskolak

Lehenengoari dagokionez, azken urteetan segurtasunaren gaiaren inguruko pertzepzioa aldatu da eta elkarren arteko mesfidantza ezerrri da gure jendeartean. Mundu berria eraikitzen dugunok oso argi daukagu gizartearen oinarrietan mesfidantza eta zigorrak (gogorragoenak badira, hobeto) sistema kapitalista neoliberalaren apostua dela eta horrek eragin zuzena duela herriaren antolakuntzan. Modu horretan, kontrolez beteriko mundu honetan segurtasuna eta justizia lantzea beharrezkoa iruditzen zaigu.

Bigarrenari dagokionez, Euskal Herriko errealitate politiko, soziala eta kultura plazaratzeko formakuntzak antolatuko ditugu baita ere. Munduaren digitalizazioak eta azkartasunak espazio gutxi uzten dizkigu iraganeko zein gaur egungoaren argazkiak egiteko munduari erakusteko. Horregatik, formakuntza hauek modu oso berezi batean irudikatzen hasi ditugu.

B. Prozesu parte-hartzaileak

Bi proiektuak aurrera eramateko lantalde bat sortzea pentsatu dugu bakoitzean. IPESen filosofiarentzat proiektuak prozesua parte-hartzaileetan antolatzea eta eraikitzea derrigorrezko ariketa da.

Hala, herri mugimendu ezberdinen arteko aliantzak sortzen ditugu eta eztabaidatzeko espazioak antzak non helburua marko komunak eraikitzea da ondorio partekatuak ateratzeko.

Horregatik, gaur hemen gaudenok, norbanakoak zein eragile ezberdinen parte zaretenak, gure proiektuetan parte hartzera animatzen zaituztegu, herriatik sortzea ezinbestekoa delako guretzat. Beraz, guztion ikuspegiak beharrezkoak dira proiektuak koherentzia izateko herriaren beharrekin, azken finean benetako ekarpena egin ahal izateko.

IV. Ariketa kolektiboa

Beraz, amaitzeko, eta aurrera begirako erronkak plantetzeko asmoz, zuen interesa piztu dezaketen gaiak jakitea gustatuko litzaiguke. Horetarako, hurrengo galdera botatzen dizuegu, 5 minututan erantzuteko karpeteta barruan dagoen post-itetan.

Mundu konplexu zein aldakor honetan alternatibak eraikitzeko aukera sortzen dira. Beraz: Ze gaiak teorizatu beharko genituzke herriaren zein herri mugimenduen ahalduntze prozesuari ekarpena egiteko?

Honekin bukatzen dugu aurkezpena. Karpetetan duzuen dokumentuan telegramako difusio kanalerako QR-a dago. Beraz, interesatu baldin bazaude digitalki ikusiko dugu elkar, eta espero dugu gure espazio fisikoetan elkar ikustea ere bai.

Eskerrik asko berriz etortzearren. Edozein gauza, Bilboko Ronda kaleko 25. zenbakian aurkituko garen.